

Umetoki-lepoko
minbizia
goiz detektatzeko
programa

ZER- BIX -EKO MINBIZIA

Garaiz detektatzea, hortxe dago koska.



Osakidetza


Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

UMETOKI LEPOKO EDO ZERBIXEKO MINBIZIA



Emakumezkoen genitalen alde bati eragiten dion minbizia da: umetoki-lepoa, umetokiak bagina-rekin konektatzen duen aldea.

Oro har, minbizi-mota honek 10 urte baino gehiago behar izaten du garatzeko; beraz, epe luzea dago detektatzeko, tratatzeko eta sendatzeko.

Umetoki-lepoko minbizia goiz detektatzeko programa oso eraginkorra da gaixotasuna detektatu, garapena kontrolatu eta lesio aitzindariak tratatzeko, horrela, minbizi-mota hori garatzeko aukerak gutxitu egiten dira.

Umetoki-lepoko minbiziaren arrazoi nagusia Giza Papilomaren Birusa (GPB) da, eta sexu-harremanen bidez oso erraz transmititzen da.

Kutsatu ahal izateko ez dago koito-harremana izan beharrik ere.

GPB infekzioa oso ohikoa da eta gehienetan infekzioa bere kabuz desagertzen da. Hala ere, kasuen ehuneko txiki batean, infekzioa ez da joaten eta aldaketak sor ditzake umetoki-lepoko zeluletan. Horiek gaiztotu aurreko lesioak garatzen dituzte eta horiek, denborarekin, minbizi bihur daitezke.

Goiz detektatzeko probek (**zitologia eta GPBaren proba**) laguntzen dute gaixotasunari aurrea hartzeko.

Gainera, **GPBaren txertoak babes eraginkorra ematen du umetoki-lepoko minbizia eragiten duten GPB mota nagusien kontra.**

Preserbatiboa behar bezala erabiltzeak birusa transmititzeko arriskua nabarmen gutxitzen du, baina gogorarazi behar da genitalen kontaktua edo aho-sexua nahikoa dela kutsatzeko.

Nola har dezaket parte programan?

Proba egiteko emaginaren kontsultara joateko zita ematen dizun gonbidapen-gutun bat jasoko duzu.

Umetoki-lepoko minbizia detektatzeko edo zerbixaren baheketarako proba egiteko **hitzordu esleitu** bat da.

Nolakoa da proba?

Zerbixeko baheketa-proba prozedura erraza eta samurra da, bost minutu baino gutxiago irauten du eta ez du minik ematen.

Emaginak espekulu izeneko tresna batez umetoki-lepoko lagin bat hartu eta laborategira bidaliko du, bertan aztertu dezaten. Zitologiarako edo GPBa zehazteko prestatuko dute lagina.

Probara joateko hau hartu behar da kontuan: proba ez da egin behar emakumeak hilekoa duenean, eta proba egin aurreko hiru egunetan ez da bagina bidezko medikamenturik erabili behar.

Norentzat da programa hau?

25 eta 65 urte bitarteko emakume guztientzat da. Proba egiteko maiztasuna honako hau da, adinaren arabera:

25-34 urteko emakumeak: **zitologia** 3 urtez behin.

35-65 urteko emakumeak: **GPBaren detekzioa** 5 urtez behin.

Zer hartu behar da kontuan proba egin baino lehen?

Emakume gehienen zerbixeko baheketa-probaren emaitza normala izango da.

Zelula anormalak edo GPBaren presentzia detektatu badituzte, paziente horiek ginekologiako zerbitzura bidaliko dituzte azterketa osatzeko.

+ info: www.osakidetza.euskadi.eus